

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea arau subsidiarioen zazpigarren aldaketa puntualari

Aiarako korporazioak, 2016ko azaroaren 17an egindako ohiko osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Hasierako onarpena ematea udalerriko arau subsidiarioen zazpigarren aldaketa puntualari, Arespalditzako Administrazio Batzarrak eskaturik.

Bigarrena. Jendaurrean jartzeko hilabeteko aldia irekitzea, dagozkion iragarkiak ALHAOn eta herrialdean zabalkunde handiena duten egunkarietako batean argitara emanaz. Hilabeteko aldi horretan zehar, dagozkion iragarkia ALHAOn argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, eragiten diela usten duten guztiek dokumentazio osoa Aiarako Udalaren idazkaritzan aztertu ahal izango dute, jendeari atenditzeko ordutegian, baita udalaren web orrian ere (atala: Udal arloak eta zerbitzuak – Hirigintza – antolaketa tresnak). Halaber, egokitzat jotzen dituzten oharrak eta alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Hirugarrena. Eten egiten da, gehienez ere urtebetez, mota guztietako onarpenak, baimenak eta lizentziak ematea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza araubidean aldaketa sortzen duten eremuetan.

Laugarrena. Erabaki honen berri ematea udalerriko administrazio batzarrei, dagozkien txostenak eman ditzaten.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Arespalditza, 2016ko azaroaren 22a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA